

EUSKARAZKO PALINDROMO LEHIAKETA 23-24

SARITUTAKO PALINDROMOAK:

2023-2024ko Palindromo Lehiketako epaimahaikideok (Joseba Sarrionandia, Rober Sánchez Peramento, Aitor Ogiza 'Toto' eta Itziar Aranburu 'bigara') 2024ko otsailaren 7an Donostian elkartuta, hurrengo palindromoak saritzea adostu dugu eta Laugarren saria eta Aparteko aipamena gehitzea erabaki dugu:

Sariak:

Lehen Saria:

Irauli psiko-eleok ispiluari.

Azkaz - Mikel Azkarate

Meta-hizkuntzaren bidez, palindromogintza modu poetikoan definitzen du: ispilu moduan letra edo testuak biratzea.

Bigarren Saria:

Utz Iparragirre han! Ona da danona; herri garra piztu!

Txangurro - Jon Altuna Iza

Erabilitako gai eta hitzen aukeraketa bereizgarria da.

Hirugarren Saria:

Ostolaza zenez izenez Ana; zen ezizenez "Azal Otso".

Andando - Dabid Amuategi Marin

Izena eta ezizenaren arteko lotura burutsua egiten du.

Laugarren Saria:

Kamarada, bala badaramak?.

Blas axeria - Xabier Lasa Agirrezabal

Bere sinpletasunean borobila da.

Aipamen bereziak:

a. Jostariena

Zetak, Kai Nakai, ala ia kaniak katez?

SotoS - Xabier Soto Garcia

Musikarekin duen loturarengatik garaikidea eta gaztea da.

b. Luzeena

- Zu ta ni zulatuz idikeria eta adarra. Zu toreatu, Alf Wolf ala nazi ergela. Uzki-nagi! Lore-zulo! So, nahira musua hega, miretsi marika, neroni alegia.

- Emetuz idia gero, Adani ze nazi eme-sexua. Hola, Eba gabe, alo. Hauxe seme izan ezina da. Ore-gai dizut emea, igela!

- Inoren Akira mister image hau, sumari han (oso luzero liga nik zu, alegre izan ala flow!), flauta erotuz arra da.

- Atea ireki dizut... aluzinatuz.

Akira Marika - Asier Arregi Hernandez

315 hizkirekin, proposamen luzeena izan da.

c. 18 urtetik beherakoena

Apal aparta ala atrapa lapa?

oso soso - Maddi Aranguren Carbayeda

Hitzez hitzeko simetria ematen da, aliterazio ederrean.

d. Aparteko aipamena

Iduri du = dirudi

"Ni" aroa da orain

Autore erotua - Igor Martin de Vidales Navarro

Egileak egin dituen ekarpenak ugariak izan dira. Azpimarratzekoa da, kasu anitzetan, bere soiltasunean oso iradokitzaileak diren palindromoak direla.

AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAK:

Oinarrietan zehaztu den moduan, hauek izan dira aukeraketarako irizpide nagusiak:

Testu palindromoa **jenialtasuna, zentzua eta zuzentasuna** nabarmenduz osatuko da. Palindromoan H hizkia erabiliz gero bi norabidetan erabiliko da, (hatxea ahoskatzen ez bada ere). Digrafoak (ts, tx, tz...), hots bakarra badira ere, bi letra moduan erabiliko dira: asto hotsa.

EUSKARAZ. Aurkeztutako palindromoa euskaraz idatzita egongo da, **batuan, edozein euskalkitan** zein tokiko euskaran, idatzizko eta ahozko erabilerak kontuan izanik.

HEDADURA. Palindromoaren hedadura gutxieneko **11 letratik aurrerakoa** izango da, eta nahi bezainbesteko hedadura hartuko du.

ORIGINALA. Aurkeztutako palindromoa originala izango da, eta aurretik ez da saritua izango beste edozein lehiaketatan (ezta duela ehun urtekoan!).

BALORAZIOA. Oro har, hurrengo hauek baloratuko dira:

- **Komunikazio funtzioa**, aberastasun semantikoa, ulergarritasuna.
- **Jenialtasuna**, balio artistikoa, originaltasuna.
- **Zuzentasun formala**, gramatikala.

LEHIAKETARI BURUZKO HITZ BATZUK

1923-1924an, ‘Euzkadi’ egunkariaren orrietatik Kirikiñok bideratu zuen Palindromo lehiaketaren epe berberak mantendu ditugu aurtengo lehiaketa antolatzeko: abenduaren 16an hasi eta otsailaren 29an jakingo dira sarituak.

2023-2024an BERRIarekin lankidetzan antolatutako lehiaketan parte-hartzea, oso handia izan da. Nabarmen gainditu ditu antolatzaileen espektatibak.

Duela mende bateko hartan, hilabete parean, irakurleek 150 palindromotik gora bidali zituzten erredakziora.

‘Berria’ren webgunetik bideratu den lehiaketa honetan, euskal palindromozaleek 477 esaldi palindromo bidali dituzte guztira. Bakarrik azken egunean, 150 palindromotik gora bidali dituzte, duela mende bateko lehiaketaren epe osoan zehar bezainbeste.

Duela ehun urte, B. Egitiz ezizenarekin, ondoren Otxolua deituko zen itzultzaile-idazleak, 134 palindromo aurkeztu zituen. Oraingo honetan, inork ez du gainditu marka hori. Gehien bidali dituen partehartzaileak “Autore Erotua” izengoitia du eta 87 palindromorekin parte hartu du. Erotzeko modukoa, bai! “Andando” eta “Zaimutz” sinadurapean aritu diren palindromogileen ekarpena oparoa izan da ere, bakoitzak 30etik gora aurkeztu du eta.

Sorpresak ere izan ditugu: kalitatezko esaldi kapikuak daude, palindromo dibertigarri eta jostariak, batzuk sinpleak eta iradokitzaileak eta beste batzu endrebesatuak... Elkarren antza dutenak ere badaude. Hau ohikoa da palindromoetan, izan ere, palindromoa egitea hitzetan atzeraka ezkutatuta dagoena argitara ekartzean datza. Sorkuntza hau aurkikuntzan oinarrituta

dago, nabarmen. Honela, egile desberdinek leku eta denbora desberdinetan aurkikuntza berbera egin dezakete .

Palindromo luzeak egitea erronka handia da, bi norabideetan luzatu ahala, zuzentasunari eta zentzuari eustea oso konplexua delako. Aurkeztutako zortzi palindromo 100 karakteretik gorakoak izan dira eta luzeenak 315 letra ditu.

Gazte jendeak ere parte hartu du eta hogeit hamar proposamen daude 18 urtetik beherakoenak.

Sari andana planteatu da, parte-hartzea sustatu eta ahalik eta palindromo gehienak balioan jartzeko asmoz: Hiru sari nagusi emango dira zuzentasun formala duten palindromoen artean, komunikazio funtzioa eta jenialtasuna baloratuz; eta hiru aipamen berezi: palindromorik jostariena, luzeena, eta gazteenek egindakoen artean ederrena. Jasotako lan kopuru eta hauen kalitatearengatik, Laugarren saria eta Aparteko aipamena gehiatzea adostu dugu.

Haseratik, agerian geratu da gurean hizkuntzara modu ludikoan gerturatzeko grina edo eta palindromoekiko zaletasuna eta egiteko ohitura ere (eremu pribatuan geratzen dena, askotan) badagoela. Epea ireki aurretik jendeak interes handia agertu zuen eta lehen egunetan proposamen zaparrada iritsi zen: lehen bi egunetan 70 esaldi.

Antolatzaileentzar zailena bi norabideko esaldi guzti horien artean borobilenak aukeratzea izan da, hainbeste dira aipagarri! Otsailaren 7an Donostian gara epaimahaikideak, iritziak elkarri adierazi eta aukeraketa adosteko: Joseba Sarrionandia, idazlea; Rober Peramento, palindromogilea; Aitor Ogiza ‘Toto’, Ermuko Kaltxango AEK euskaltegiko irakaslea eta palindromozalea eta Itziar Aranburu, Bigarako kide eta palindromogilea.

Helburu nagusiak betetzen ari direla ikusi dugu. Batetik, euskal komunitatean palindromo eta hitz jokoekiko zaletasuna piztea eta bestetik zaletasuna duten pertsonak lokalizatu eta hartu-emanak sendotzeko bideak irekitzea. Aldi berean, lehiaketa honek ludolinguistikaren arloan sormen eta sustapenean paper esanguratsua izan duten bi egileen lana aitortzeko jomuga du: Ebaristo Bustintza Kirikiño mañariarrak eta Markos Gimeno Vesga ermutarrak ehun urteko aldearekin euskal palindromogintzari egindako ekarpena goraiatzea.